

## Ika Mizka ekitaldia ospatu da Oñatin.

2014/10/31

Eurekin batera Mikel Biain, Oñatiko alkatea, eta Nerea Zubia, Oñatiko Euskara eta Kultura zinegotzia izan dira. Gure hizkuntzaren inguruko gogoeta partekatu eta iritzia elkar-hartu dute.

Nerea Alias aurkezlea gidari eta beste zazpi aurpegi ezagun solaskide zituztela, 10:00etan eman diote hasiera gogoetarako pizgarri den iritzi aldaketari. 12:30ak bitartean izan dira, zizka-mizka artean, zortzi bat lagunek osatutako taldeetan kontu kontari. 100etik gora lagun orotara, eta gai interesgarri bezain korapilatsuak jarri dituzte mahai-gainean.

Enpresarekin lotutako gaiak nagusi izan dira, baina hala ere, parada izan dute oro har, euskaraz bizitzeko dituzten zailtasunak, beren hautuak, inguruan dituztenen jarrerak, sentimenduak, esperientziak... guztia partekatu eta eztabaidatzeko.

Kepa Errasti aktore, Ines Osinaga eta Osoron Gose musika taldeko kide, Amaia Txinturreta aurkezle, Axlor Elortza Uzei Termonologia eta Lexikografia Zentroko kide, Mariasun Pagoaga aktore eta Arantzazu Lagunilla Arteman Komunikazio taldeko kidearentzat esperientzia aberasgarria izan dela esan digute, eta oso gustura egon direla haiek ere gazteek egin behar zituzten ekarpenetan parte hartuta.

12:30ak inguruan amaitu dituzte mahai-inguruak, eta segidan ikasleek eurek prestatutako musika saioari hasiera eman diote Goreti eta Uxue bikotearen eskutik.

Parte hartzaile guztiek oso positiboki baloratu dute saioa. Laster izango ditugu ekitaldiaren argazki gehiago eta MUtelebistaren bideoa ere!

